

Eskala Maiorra

ABESTI BATEK **DUEN SOINUA IZATEAREN**
ARRAZOIETAKO BAT KONPOSITOREAK
AUKERATU DUEN **NOTEN MULTZOA** DA.




HAR DEZAGUN **MELODIA** HAU ADIBIDE GISA...


ETA KENDU DITZAGUN **ERREPIKATZEN DIREN NOTAK**, DAUDEN **ZORTZIDUNEAN** DAUDELA.



ORAIN, JAR DITZAGUN **NOTA** HAU EK
ORDENEAN, BATA BESTEAREN
ATZEAN, LEHENENGO **NOTA** BEZALA
MELODIA ENTZUNDA, **GARRANTZITSUENA**
EMOTEN DUENA ERABILIZ.



HORI EGIN EZKERO,
ABESTI HONENTZAKO **"PALETA"**
BATEKIN AMAITUKO DUGU...




MARGOLARIAK **KOLORE**
DESBERDINAK IZATEKO ERABILTZEN
DUEN **OHOLEAN** BEAZALA.

MUSIKAN, "PALETA" HAU **ESKALA**
BEZALA EZAGUTZEN DA. NAHIZ ETA
NORMALEAN **ESKALAK GORANZKO** ORDENEAN
JARRI, EGIA EZAN **EZ DA GARRANTZITSUEGIA**;
INPORTA DUTENAK **ESKALA** OSATZEN
DUTEN **NOTAK** DIRA.

ANTOLAKETA BEREZI
HAU, NON **TONUERDIA**

(HIRU-LAU, ETA **ZAZPI-ZORTZI**

(EDO **ZAZPI-BAT**, ZORTZIGARRENA ETA LEHENA BERDINAK
BAITIRA) **NOTEN** BITARTEETAN AGERTZEN DEN, **ESKALA MAIORRA**
BEZALA EZAGUTZEN DA.



(BIDE BATEZ, **ESKALA** HAU **SOL MAIORREKO**
ESKALA DEITZEN DA, **SOL** BATEKIN HASTEN BAITA.)

FORMULA HAU JAKINIK **EDOZEIN NOTAREKIN** HAS ZAITEZKE **ESKALA MAIORRAK** SORTZEN!



FA MAIOR ESKALA



SI MAIOR ESKALA




RE BEMOL MAIOR ESKALA



SOL BEMOL MAIOR ESKALA

BAINA GOGORATU
EZAZU... **BOTERE**
HANDI BATEK
ERANTZUKIZUN
HANDIA DAKAR!

TEKLATU BATEAN **ONDOZ-ONDO**
DAUDEN TEKLEN ARTEKO
DISTANTZIA **TONUERDI** BAT DA,
KOLOREA BELTZA EDO ZURIA
DEN AXOLA GABE.



TONU BAT
TONUERDI BI
AINA DA.